

Ez dira hain beltzak igarkizunak.
 Ez dira itzalak hain luzeak.
 Ez da ilunegia esperantza.


ZABALDU MARATILA, IREKI LEIHOA:

Lanean ari dira etengabe sormenaren laborategi eta tailerrak.
 Zabal-zabalik euskal artearen lantegiak.
 Joka mailuak tinko.

Jon Gerediaga



PREZIOAK	BONOAK
6 € - 8 €	BONOMARATILA (6 ikuskizun): 30 €



**Leioa
2013**

OTSAILAK 28

“Iragan perfektua”

Horman Poster Kolektiboa
 ANTZERKIA (ESTREINALDIA)

MARTXOAK 1

“Poza: Zergatik dantzatzen dute bosniarrek?”

Metrokoadroka kolektiboa
 ANTZERKIA (AURRESTREINALDIA)

“Bi arreba”

Xabier Lizaso & Andoni Egaña
 MUSIKA / BERTSOAK

MARTXOAK 2

“Biutz”

Rouge Eléa
 ANTZERKIA / ZIRKOA / BIDEOA

Anari

ROCK

MARTXOAK 3

“Lingua nabajorum”

Tartean Teatroa /
 Ez dok hiru bikoteatroa
 ANTZERKIA / UMOREA

“IRAGAN PERFEKTUA” HORMAN POSTER KOLEKTIBOA

SORKUNTZA:
Horman Poster

INTERPRETEAK:
Matxalen de Pedro, Igor de Quadra

Nola gogoratu bizi izan ez duzuna? Imaginen bitartez? Zer gogorra dezakegu? Imaginak baino ez? “Iragan perfektua” zuri-beltzean egindako memoriaren eragiketa da. Gure bizitza markatu eta aldi berean ezezagun zaigun 70. hamarkada zeharreko ibilbidea: nolakoak izan ziren haurtzaroko beste urte horiek, urte bortitz, arduragabe horiek?

ESTREINALDIA

Otsailak 28
(20:30)



8 €

Auditorium · 75'


“BIUTZ” ROUGE ELÉA

ZUZENDARITZA:
Rouge Eléa, Noemí Viana, Urko Redondo, Ainara Gurrutxaga

INTERRETEAK:
Corine Cella, Ander Fernandez

Biutz da Ceuta eta Maroko banatzen dituen hesia zeharkatzeko pasabideetariko baten izena. Mugaren ideiak, batzen eta banatzen gaituenaren metafora erreala, betetzen du eszena-espazioa. Arteen arteko mugak baitaude... eta muga ukigarriak gizakion artean. Eta “Biutz”-ek batzuen gainetik jauzi egiten du besteak hobeto desafiatzeko.

Martxoak 2
(20:30)



8 €

Auditorium · 60'

“POZA: ZERGATIK DANTZATZEN DUTE BOSNIARREK?” METROKOADROKA KOLEKTIBOA

ANTZEZLEAK:
Jabi Barandiaran, Idoia Beratarbide, Ander Fernandez, Oier Guillan, Asier Sarasola

ZUZENDARITZA: Corinne Cella
(Dejabu Panpin Laborategia)

Martxoak 1
(20:30)

Bost lagun gela batean, zer edo zer ederra gertatzeko zain. Edertasunak itxaropena sortzen du, horregatik egin ohi zaio kontra. Esperientzia lazgarri bat bizi izan duen inor ikustea mozkortzen, dantzatzen, ahotsa kantatu batean urratzen... horren lekuko denari sortzen zaion egonezina da lan honen abiapuntua. Izutzeraino gozoak diren uneak, hunkiduraraino ederrak diren krudeltasunak.

AURRESTREINALDIA



8 €

Auditorium · 60'

ANARI

FITXA ARTISTIKOA:
Anari Alberdi (gitarra eta ahotsa), Borja Iglesias (gitarra), Xabier Olazabal “Drake” (baxua), Mikel Abrego (bateriak), Mariano Hurtado (teklatuak)

Anari abeslari eta musikagile gipuzkoarra Psych Out taldearen bateria-jotzaile bezala hasi zen musika munduan. Bere bakarkako lehenengo diskoa 1996an kaleratu zuen, “Anari” izenburuarekin eta urte horretatik gaur arte bere ibilbidea jorratzen joan da, indar handiko rock pertsonal bat jorratuz eta alde poetiko nabarmena daukaten letrak erabiliz.

Martxoak 2
(22:00)



6 €

Auditorium · 60'

“BI ARREBA” XABIER LIZASO & ANDONI EGAÑA

FITXA ARTISTIKOA:
Xabier Lizaso (pianista), Andoni Egaña (ahotsa)

Chopinzelea da Xabier Lizaso pianista. Xenpelar gustuko du Andoni Egaña bertsolariak. Chopinek eta Xenpelarrek badute elkarrekiko antzekotasunik. Chopin eta Xenpelarrek ez zuten elkar ezagutu. Xabier Lizasok eta Andoni Egañak bai. Horregatik, bi mundu, bi obra, bi kultur-modu eta bi arreba ezagutu eta ezagutzera emateko ahalegina egin dute.

ESTREINALDIA

Martxoak 1
(22:00)



6 €

Erakusketak gela · 90'

“LINGUA NABAJORUM” TARTEAN TEATROA / EZ DOK HIRU BIKOTEATROA

EGILEA:
Patxo Telleria

ANTZEZLEAK:
Mikel Martinez, Patxo Telleria

Euskaldunak historian zehar beti ibili dira liskarrean kanpokoekin edo euren artean. Egileen arabera liskarrok sortu eta garatu dute euskara. Gatazka bakoitzari euskararen aldaketa bat dagokio. Hortaz, euskararen garapena ez da inoiz geldituko, gatazkak, modu batekoak edo besteak, beti egongo direlako.

Martxoak 3
(20:30)



8 €

Auditorium · 60'



Leioa 2013

